

## **BILBOKO UDALAK DATORREN EGUAZTENEAN IREKIKO DU OSTALARITZARAKO ZUZENeko LAGUNTZAK ESKATZEKO EPEA, ETA 3,3 MILIOI EURO BIDERATU DITU HORRETARAKO.**

- Datorren eguaztenetik aurrera, abenduak 23, irekiko da epea COVID-19ak erasandako ostalaritza-sektorerako zuzeneko laguntzak eskatzeko, eta 2021eko urtarrilaren 31ra arte egongo da irekita.
- Guztira, aurrekontua, 3,3 milioi eurokoa izango da, eta Bilboko Udalak banatuko dituen zenbatekoak 1.000, 1.250 edo 1.500 eurokoak izango dira, enplegatu kopuruaren arabera, eta bateragarriak izango dira Eusko Jaurlaritzak emandakoekin.
- Jatetxeen arloak (jattetxe, taberna, kafetegi eta bestek), OSTATATZEEN arloak, catering enpresek, diskoteka eta dantzalekuek eskuratu ahal izango dituzte laguntzok.

(*Bilbo, 2020ko abenduaren 17a*).- Bilboko Udalak zuzeneko laguntzak emango ditu COVID-19ak eragindako alarma-egoera jasan duen ostalaritza sektorearentzat, eta laguntza horiek eskatzeko epea datorren **eguaztenean** hasiko da, **abenduak 23**, goizeko 10:00etatik aurrera, eta **2021eko urtarrilaren 31ra arte iraungo du**.

Udalak laguntza horiek emateko onetsi duen aurrekontua, **Juan Mari Aburto** Alkateak proposatu eta udal talde guztiekin eta sektorearekin berarekin adostua, **3,3 milioi euro da**, guztira. Zenbateko hori gehitu behar zaie, ezohiko neurri gisa, **Bilbao Aurrera 2020 Planeko** 15 milioi euroei; plan hori, jakina denez, urian pandemiak eragindako ondorioei aurre egiteko talka-programa izan da.

Gogorarazi beharrekoa da ostalaritzako sektorearentzako zuzeneko laguntzen programa hau abian jarri dela berez Udalarena ez den arlo baterako, eta xedea dela sektoreak aurre egin beharreko *zailtasun ezohikoaren* egoeran laguntzea.

### **MEKANISMO ERRAZ ETA TELEMATIKOA**

Laguntzak izapidetzea ahalik eta errazen gerta dadin, Udalak, Bilbao Ekintza udal sozietatearen bidez, datu base erraz batzuk sortu ditu eskabideak aurkezteko, eta **SARBIDE TELEMATIKOA**, [www.ayudashosteleriabilbao.eus](http://www.ayudashosteleriabilbao.eus) webgunean, **abenduaren 23an jarriko da abian, goizeko 10:00etatik aurrera**. Udaleko arduradunen arabera, *“xedea da egoera jasan duten profesionalak aukera izatea laguntzak erraz eskuratzeko eta lasaitasuna izan dezatela eskaera garaiz egiteko.”*

Udalak egindako azterlanen arabera, kalkulatu da Bilbon 2.800 establezimendu izan litezkeela laguntzetarako deialdi honen onuradun, *“eta, beraz, guztiek izango dutela aukera haietarako, aurrekontu arazorik gabe eta epearen larritasunik gabe”*.

### **NORENTZAT DIREN LAGUNTZAK**

Laguntza hauek eskatu ahal izango dituzte Bilboko pertsona fisikoek (autonomo eta/edo profesionalak, ondasun erkidegoetako eta nortasun juridikorik gabeko sozietate zibiletako bazkideek) edo pertsona juridikoen, ostalaritzaren eta jatetxeen sektorekoak badira, eta baita ere ostatatzeen arlokoek eta catering enpresek.

- Zehazki, **jatetxeen arloko establezimenduek (jatetxe, taberna, kafetegi eta antzeko establezimenduak, beren jarduera establezimendu finko eta jende guztiari irekietan gauzatzen badute, eta lokalean bertan kontsumitzeko janariak eta edariak eskaintzen jarduten badira ohikotasunez eta profesional moduan), eta baita ere OSTATATZEEK eta CATERING ENPRESEK. Diskotekak eta dantzalekuak ere sartu dira onuradun izan daitezkeen artean.**

Ez dira sartu, ordea, turismo erabilerako etxeak eta janariak eta edariak etxez etxe banatzen jarduten diren enpresak.

### **LAGUNTZEN ZENBATEKOAK: 1.000 €tik 1.500 €ra**

Emango den zenbatekoa establezimenduan lan egiten duten pertsonen arabera da:

- 1-3 langile bitartean dauzkaten establezimenduak: 1.000 euro.
- 4-10 langile artean dauzkaten establezimenduak: 1.250 euro.
- 10 langile baino gehiago dauzkaten establezimenduak: 1.500 euro.

Bilbon establezimendu bat baino gehiago edukiz gero, lokal bakoitzerako laguntza bat eskatu ahal izango da. Horrez gain, laguntzok bateragarriak izango dira beste administrazio publiko batzuek eta/edo entitate pribatu batzuek ematen dituztenekin.

Eusko Jaurlaritzaren laguntzak gehituz gero, hauek izango lirateke zenbatekoak:

- **1-3 langile artean:** 3.000 € -Eusko Jaurlaritzarenak **(+ 1.000 Bilboko Udalarenak)** = Guztira, 4.000 €
- **4-10 langile artean:** 3.500 € Eusko Jaurlaritzarenak **(+ 1.250 € Bilboko Udalarenak)** = Guztira, 4.750 €
- **10 langile baino gehiagokoak:** 4.000 € Eusko Jaurlaritzarenak **(+ 1.500 € Bilboko Udalarenak)** = Guztira, 5.500 €

### **INFORMAZIOA**

- Argibide gehiago nahi izanez gero eta zalantzak argitu nahi izanez gero, posta elektronikoko helbide hau erabili ahal da: **ayudashosteleriabilbao@bilbaoekintza.bilbao.eus** edo **telefono** hau: **944205357** goizeko 9:00etarik arratsaldeko 14:00etara.
- Laguntzak eskatzeko esteka telematikoa **ABENDUAREN 23TIK AURRERA EGONGO DA BALIATZEKO PREST** <http://www.ayudashosteleriabilbao.eus>.

## **EL AYUNTAMIENTO ABRIRÁ EL PRÓXIMO MIÉRCOLES EL PLAZO PARA SOLICITAR LAS AYUDAS DIRECTAS A LA HOSTELERÍA, CON 3,3 MILLONES DE EUROS**

- A partir del próximo miércoles, 23 de diciembre, se abrirá el plazo para acceder a las ayudas directas, dirigidas al sector de la hostelería afectada por el COVID-19, y estará vigente hasta el 31 de enero de 2021.
- Con un presupuesto total de 3,3 millones de euros, las cuantías a otorgar por el Ayuntamiento de Bilbao serán de 1.000, 1.250 o 1.500 euros, en función del número de empleados, y serán acumulables a las ofrecidas por el Gobierno vasco.
- Podrán acceder a las ayudas establecimientos de restauración (restaurantes, bares, cafeterías...) así como ALOJAMIENTOS, empresas de catering, discotecas y salas de fiestas.

(Bilbao, 17 de diciembre de 2020).- El plazo para poder presentar las solicitudes de las ayudas directas concedidas por el Ayuntamiento de Bilbao al sector de la hostelería, afectado por el estado de alarma producido por el Covid-19, se abrirá el **próximo miércoles, 23 de diciembre**, a partir de las 10 horas, y **se prolongará hasta el 31 de enero de 2021**.

El presupuesto total aprobado por el Consistorio, tras ser propuesto y consensuado por el Alcalde, **Juan Mari Aburto**, con todos los grupos municipales y con el propio sector, asciende a **3,3 millones de euros**. Esta cuantía se suma, como una medida extraordinaria, a los 15 Millones de euros del **Plan Bilbao Aurrera 2020**, programa de choque para hacer frente a los efectos de la pandemia en la ciudad.

Hay que recordar que la puesta en marcha de este programa de ayudas directas a la hostelería, aun no siendo un ámbito propiamente municipal, se ha establecido con la finalidad de reforzar la situación de *extraordinaria complejidad* que afronta el sector.

### **MECANISMO SENCILLO Y TELEMÁTICO**

Con el objetivo de facilitar y hacer lo más accesible posible la tramitación de las ayudas, el Ayuntamiento a través de su sociedad municipal Bilbao Ekintza, ha habilitado una web para la entrega de las solicitudes, [www.ayudashosteleriabilbao.eus](http://www.ayudashosteleriabilbao.eus), cuyo **ACCESO TELEMÁTICO se activará** a partir del **día 23, a las 10:00 a.m.** *“La finalidad -según los responsables municipales- es que los profesionales afectados puedan acceder con facilidad y con la tranquilidad de poder llegar a tiempo”.*

Según los estudios realizados por el Consistorio, en Bilbao se estima que hay en torno a 2.800 establecimientos potenciales de ser beneficiarios de esta convocatoria, *“por lo que –precisan- todos podrán acceder sin ningún problema presupuestario ni por premura de los plazos”.*

### **A QUIÉN SE DIRIGEN LAS AYUDAS**

Podrán solicitar estas ayudas, las personas físicas (autónomas y/o profesionales, socios/as de comunidades de bienes y sociedades civiles sin personalidad jurídica) o jurídicas pertenecientes al sector de la Hostelería y Restauración, así como los alojamientos y empresas de catering del municipio de Bilbao.

- En concreto, **establecimientos de restauración (restaurantes, bares, cafeterías y establecimientos de similar naturaleza que desarrollan su actividad en establecimientos fijos, abiertos al público en general, que se dedican de forma habitual y profesional a ofrecer comidas y bebidas para consumir en el mismo local) así como ALOJAMIENTOS y EMPRESAS DE CATERING. También se ha incluido las discotecas y salas de fiestas.**

Quedan excluidas las viviendas de uso turístico y empresas de reparto a domicilio de comidas y bebidas.

### **CUANTÍAS DE LAS AYUDAS: DE 1.000 a 1.500€**

La cuantía a conceder, varía en función del número de personas trabajadoras en el establecimiento:

- Establecimientos con 1-3 personas trabajadoras: 1.000 euros.
- Establecimientos de 4-10 personas trabajadoras: de 1.250 euros.
- Establecimientos de más de 10 personas trabajadoras: 1.500 euros.

En el caso de tener varios establecimientos en Bilbao, se podrá solicitar una ayuda por cada uno de los locales. Además, podrán ser acumulables y compatibles con las ofrecidas por otras Administraciones públicas y/o entidades privadas.

Sumando las ayudas del Gobierno Vasco, la distribución quedaría de la siguiente manera:

- **De 1-3 personas trabajadoras:** 3.000€ del Gobierno Vasco **(+ 1.000€ del Ayto. Bilbao)** = Total 4.000€.
- **De 4-10 personas trabajadoras:** 3.500€ del G.V. **(+ 1.250 € de Ayto. Bilbao)** = Total 4.750 €.
- **De más de 10 personas trabajadoras:** 4.000 € del G.V. **(+ 1.500 € de Ayto. Bilbao)** = Total 5.500€.

### **INFORMACIÓN**

- Para más información y consulta de dudas, se podrá hacer a través de este correo electrónico: **ayudashosteleriabilbao@bilbaoekintza.bilbao.eus** o a través del teléfono **944205357 en horario de 9:00 a 14:00.**
- El enlace telemático para acceder a las ayudas, **QUE SOLO ESTARÁ HABILITADO A PARTIR DEL DÍA 23**, es [www.ayudashosteleriabilbao.eus](http://www.ayudashosteleriabilbao.eus).